

ULTZAMAKO UDALA

Ultzamako Udalaren herri-larreen errentamendua.

Ultzamako Udalak, 2017ko otsailaren 2an eginiko osoko bilkura arruntean, Ultzamako Udalaren herrilurretako larreen aprobetxamenduak errentan emateko prozedura onetsi zuen baita espedientera bildutako dokumentuak ere (Baldintza Plegua). Aipatu prozedurak honako hauek izanen ditu arau:

Errentan emanen diren herrilurretako larreak:

1. larrea:

Azalpena: Narbatazu aldea, 20. poligonoko 26 C lurzatiaren puska. Bazkalekua den Nekazaritzako Lurzati Informazio Geografikorako Sistemaren (NELIGS) "1. esparruari dagokio. Larre horretan dagoen nabearen errentamendua ere sartzen da lotean.

Azalera, gutxi gorabehera: 6,33 hektarea

Lizitazioaren hasierako prezioa: 2.000 euro urteko.

2. larrea:

Azalpena: Narbatazu aldea, 20. poligonoko 26 P lurzatiaren puska. Bazkaleku eta larre zuhaixkaduna diren NELIGSeko 2, 4 eta 5. esparruen puska batzuei dagokie.

Azalera, gutxi gorabehera: 4,47 hektarea.

Lizitazioaren hasierako prezioa: 1.000 euro urteko.

3. larrea:

Azalpena: Larrantzarko Benten aldea, 2. poligonoko 159. lurzattia, eta 13. poligonoko 31 B lurzattia. "Goldatzeko lur" eta "larre zuhaixkadun" diren NELIGSeko 1 eta 2. esparruei (159-2 lurzattia) eta "goldatzeko lur" eta "larre zuhaixkadun" diren NELIGSeko 1, 2, 5 eta 6. esparruei (31-13 lurzattia) dagozkie.

Azalera, gutxi gorabehera: 3,85 hektarea.

Lizitazioaren hasierako prezioa: 1.560 euro urteko.

.- Herritarrendako zuzeneko esleipena:

Ultzamako herrilurretako aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantzaren 21. artikuluan zehazten den bezala, lehendabizi larre "irekiak" esleitu dira, ordenantzaren 16.1 artikuluan zehazten baitira, eta bigarrenik, baldintza-plegu honen lehenbiziko klausulan zehazten diren larreak.

Larreen aprobetxamendua prozedura honen bidez eskatu nahi dutenek ordenantzan adierazitako moduan aurkeztu beharko dituzte eskabideak, betiere ordenantzan eta aplikatzekoa den legerian ezarritako baldintzak betez eta 2017ko martxoaren 17ko 14:30 baino lehen.

Esleipena egingen da ezarritako oinarrizko prezioen %90ean, hori guztia lehenago aipatutako araudiari jarraikiz.

.- Enkante publikoa:

Modu horretan esleitu dira baldintza agiri honetako lehenbiziko klausulan zerrendatu diren larreak, zuzeneko esleipenaren bidez esleitu ez badira, eta gainera hartan esleitu behar ziren hasierako prezioan.

"Gutun-azal itxiaren bidezko enkantea" izanen da prozedura, eta hasierako prezioak izanen dira baldintza-pleguan zehaztutakoak.

Eskaintzak aurkezteko epea 2017ko martxoaren 23an, osteguna, bukatuko da, 13:00etan.

Epean jasotako gutun-azalak jendaurreko ekitaldian irekiko dira, 2017ko martxoaren 23an berean, 14:00etan, Ultzamako udaletxeko areto nagusian.

Enkantean parte hartu ahal izateko lizitatuzaileek aurkeztu beharko dute behin-behineko fidantza gisa udal diruzaintzan pausatu duten 30 euroko behin-behineko bermearen ordainagiria.

Esleipen prozedura amaituta, behin-behineko bermearen zenbatekoa itzuliko zaie larreen esleipen-hartzaile suertatu ez diren guztiei.

Lehenbiziko enkantea egin ondoren, sesteoa egingen da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 231. artikuluko zehaztapenei jarraikiz, betiere egungo idazketaren arabera.

Sesteoa, ezinbestean, idatziz egingen da udal bulegoetan eta dagokion (eskainitako prezioaren %10) bermea emanez, lehenbiziko enkantea egin eta sei eguneko epean, hau da, martxoaren 29a arte, 14:00etan.

Hala bada, Udalak behin-behineko esleipendunari horren berri emanen dio eta 2. enkanteko eguna eta ordua jakinaraziko.

2. enkantea (sesteoa gertatuz gero) jendaurreko ekitaldian egingen da, 2017ko apirilaren 3an, astelehenarekin, 14:00etan, Ultzamako udaletxeko areto nagusian.

Era berean, iragarki taulan eta udalaren webgunean argitaratuko da, gutxienez bi egun natural lehenago. Enkantera lizitatzailerik agertu ezean, sesteo-emaleari esleï dakiola proposatuko da.

Publizitatea:

Erabaki honi dagokionez, behar den iragarkia argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean, udalaren iragarki taulan eta udalaren webgunean, eta gainerako iragarkiei dagokienez (sesteoa, 2. enkatea...) udalaren iragarki taulan eta udalaren webgunean argitaratuko dira.”

Horiek horrela, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 141.etik 162.era bitarteko artikuluetan eta Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen gaineko Erregelamenduaren 152.etik 204.era bitartekoetan ezarritakorekin bat, honako iragarki hau ematen da argitara.

Larraintzar, Ultzamako Bailara, 2017ko otsailaren 2a.

Alkate anderea: M^a Aránzazu Martínez Urionabarrenetxea